

# PIRINIOETAKO I. MIKROIPUIN LEHIAKETA

2019

Antolatzaileak:  
Pirinioetako euskara zerbitzuak

# OINARRIAK

## 1. Baldintzak:

- Mikroipuina euskaraz idatziko da.
- Jatorrizkoa eta argitaratu gabea izan behar du.
- Mikroipuinak, gehienez ere, 100 hitz izanen ditu.
- Egile bakoitzak ezin izanen du lan bat baino gehiago aurkeztu.
- A4 formatuan aurkeztu behar da, orrialde bakarrean idatzita.

## 2. Kategoriak:

- Egile gazteak: 17-22 urte bitartekoak
- Helduak

## 3. Non eta nola aurkeztu

Posta arrunta bidez igorriko dira Pirinioaldeko Euskara Zerbitzuetako edozein bulegotara:

- Zaraitzuko Euskara Zerbitzua: Arrotxapea z/g, Ezkaroze (31690)
- Erronkaribarko Euskara Zerbitzua: San Juan auzoa z/g, Erronkari (31415)
- Aezkoako Euskara Zerbitzua: Santa Maria z/g, Aribe (31671)
- Auritz-Erroibar-Artzibar-Luzaideko Euskara Zerbitzua: Udal plaza 1, Auritz (31640)

Igortzen den gutun-azalaren barnean honakoak sartuko dira:

- Mikroipuina, izenik, sinadurarik eta inolako bereizgarririk gabe.
- Gutun-azal txikia, eta barruan datu hauek emanen dira: izen-abizenak, herria, jaiotza-data, telefonoa eta e-posta helbidea.

## 4. Noiz aurkeztu

2019ko apirilaren 12a baino lehen.

## 5. Epaimahaia

Honakoek osatuko dute: euskara teknikariek eta literatura gaietan aditu/zaletu diren bi lagunek.

## 6. Sariak

Mikroipuinak kategorien arabera sailkatuko dira eta ondoko sariak banatuko dira:

- Egile gazteak: 17-22 urte bitartekoak
  - 1. saria: 150€
  - 2. saria: oparia
- Helduak:
  - 1. saria: 150€
  - 2. saria: oparia

## 7. Ebazpena eta sarien banaketa

Ebazpena eta sarien banaketa 2019ko ekainaren 6an egingen da, Pirinioetako Eskoletako ikasleen Topaketan.

## 8. Saritutako lanak Mendixut aldizkarian argitaratuko dira.

## 9. Sariak eman gabe gera daitezke, baldin eta, epaimahaiaren irizpidearen arabera, idazlanek behar bezalako merezimendurik ez badute.

## 10. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.